



Hesian (Sakana, Nafarroa, 2006) taldearen zortzigarren diskoak "Hasiera" izenburua du eta rockaren eremuan ditu erritmoak bustita. Hesian taldearen musika ibilbidean parametro jakin batzuekin funtzionatu du, eta bikain atera zaio: bi abeslari (neska eta mutila), rocka eta haizeak. Baina eskema eta hezurdura musikalari abegikor, liluragarri eta erakargarriak diren abestiak gehitu behar zaizkio taldeak ospea lortzeko eta mantentzeko urteetan. Hori ere eskuratu du. Hesian taldearen "Hasiera" diskoak osagai eta baliabide ugariagoak bildu dizkio egitasmoari. Arbizu, Madril, Girona eta Bartzelonara joan dira "Hasiera" diskoari ginga jartzera. Soinuak oso jo sakona eta lodia du, eta soinuaren gorpuzkera zabaltu egin denez txundigarriagoak egingo zaizkigu abestiak, baina ikuskizuna atondu egiten dute, ziur. Berriro ere, rockak jan egin dio tokia haize atalari, bi kantu esanguratsu eta singlegarrietan ("Nire bihotza" eta "Plazandreak") ez dira ageri. Rock trinkoa, tempo erdikoak, erdi baladak, italiar kutsuko abestiren bat hitzetan esateko libre egingo gaituen horren bila joateko. Beraz, esango dugu Hesian taldeak rock and Rollaren jarrera eta urteetako izerdiak lan indartsuan biribildu dituela eta kantuak egiteko urteetako eskarmentua trebatu ageri dela "Hasiera" diskoan. Garden eta sutu.

Hesian taldearen Hasiera diskoa Juan Blasek grabatu eta nahastu du Madrilgo Westline Studios-en 2018ko abuztuan. Haize atalak Pello Reparazek grabatu ditu Arbizuko estudioan. Nahasketak Santi Garciak egin ditu 2018ko irailean Ultramarinos Costa Brava estudioan (Sant Feliu de Guixols, Girona). Masterizazioa Victor Garciak egin du 2018ko irailean Ultramarinos mastering estudioan (Bartzelona). Diskoaren diseinua eta ilustrazioak Marta Bellvehirenak dira. Hitzak eta melodiak: Zuriñe Hidalgo eta Fran Urias. Abestien ideia musikalak: Fran Urias. Nire Bihotza abestiaren ideia musikala Juan Blas eta Iker Toral. Haize konponketak: Pello Reparaz eta Fran Urias. Gitarra konponketak, teklatuak eta perkusioak: Iker Toral. "Ziklikak gara" kantuaren konponketak: Pello Reparaz. Konponketa orokorrak: Juan Blas.

EZ DAGO PRINTZERIK

Ipuin bat da: sorgin bat (sorgin ona, printzesaren orde), herensugea, askatasun nahia, iratxoa, sagua... Baina hori guztiaren guzti gainetik mezu argi bat: inork ezin du inor salbatu; inork ezin dio inori zorientasuna eman.

NIRE BIHOTZA

Bihotz baten inguruan hitz egiten du eta bihotz horren hausnarketa agerian geratzen da. Bihotz hau konturatzen da askotan galduta dagoela, beste batzuetan ez dakiela nor den, zer nahi duen... Baina guztiaren gainetik ohartzen da hau ere bizitza eta bidearen parte dela, beraz, onartu eta aurrera egiten du. Berak ez du izenik, ez du jaberik, ez du araurik jarraitzen. Dakien bakarra da norberarena dela, eta beraz, librea dela.

PLAZANDREAK

Gu denok oholtzara igotzen garen musikariak gara, hala ere, plazandreak gurea ere baden tokiarengatik borrokatu behar dugu oraindik ere. Eta behin agertoki gainean gaudela, aurreiritzi, begirada, hitz, epai horiei, kontzertuz kontzertu, aurre egin behar diegu. Nekeza da, oso, baina indarrik ez zaigu falta. Helduko da eguna non emakumeok oholtzaz guztiz libre sentituko garen. Abesti hau plazandre guztiei zuzenduta dago. Izan zirelako gara, eta garelako izango dira!

MAITASUN FALTSUARI

Oso abesti iluna da. Inoiz ez naiz hainbeste biluzi abesti batekin. Haustura baten arrazoi eta ondorioetan sartzen da: bakardadea, ezintasuna, inpotentzia, amorrua, buruhaustea...

IDA(HA)ZTEN

Harremanak konplexuak dira eta zerbaiten amaiera iristen denean, hartu beharreko erabakiak ere zailak izaten dira. Askotan begirada baten preso gara, promesa baten kondenan bizi gara. Bizi baino etengabeko bizirautean ibiltzen gara. Harremanei amaiera eman eta aurrera egin nahi dugunean, igaro beharreko prozesua bide laburretik zeharkatu nahi dugu, baina azkenean konturatzen gara, bide luzea zeharkatzea dela bide zuzena, eta hau, ezinbestekoa dela, hori baita benetan sendatzen gaituena.

DISFONIA

Guztiok ditugu gure ahuleziak, gure gabeziak, eta abesti honetan nirea aurkezten dizuet. Gure ahulezi hauek onartzen ditugunean, gabezi hauek gure baitan eta gure parte diren zerbait bezala onartzerakoan, orduan benetan libreago izango gara. Abesti honetan ez dut nirea ezkutatu nahi izan, munduari erakutsi baizik. Horregatik, hau presente zegoenean grabatu nuen "Disfonia", nire ahotsa momentu ahul eta urratu batean zegoenean.

ILUNTASUNA NAIZ

Bizitzak egiten gaitu garen bezalakoak. Askotan inoiz izan genuen argi hori itzaltzeko gaitasuna ere badauka.

BEGI BUSTIAK

Galdutako pertsona bati idatzitako abesti bat da. Beti bihotzean edukiko dudana pertsona bat. Inozentziak eta maitasunez beteriko haur bat.

BEGIAK

Ametsi buruz hitz egiten du abesti honek, eta aldi berean beldurrari buruz. Erabat lotuta dauden bi kontzeptu horiek hitz joko etengabe bat egiten du.

ZIKLIKAK GARA

Denborarekin ulertu dut gure gorputzak ezagutu, onartu, bizi eta maitatzea libre egiten gaituela. Emakumeok ziklikak gara, aldakorak, ilargiak eragiten dituen itsasaldiak bezalakoak: gorabeheratsuak. Gure gorputza ezagutzen eta ulertzen goazen heinean, gure burua hobe ezagutu eta kudeatuko dugu, eta honek ahaldundu eta libre egingo gaitu. Eta ez, ez gaude zorrotuta, ziklikak gara!

Eneko Garciandia: tronpeta
Beñat Larraurir: tronboia
Iker Toral: gitarra
Ane Bastida: baxua
Danel Ferreño: batera
Zuriñe Hidalgo: ahotsa
Fran Urias: ahotsa eta gitarra

ritxi aizpuru + hesian (2018ko azaroaren 21ean)

